

Gida praktikoa

Greba kapitalismoare



Eraiki alternatibak urteko egun guztietan

Gida honen bidez, Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Saretik herritarrak gonbidatu nahi ditugu egun bateko greba orokorrez haratago joatera, eta alternatibak eraikitzean bustitzera, beste eredu ekonomiko eta sozial bat eraikitzeko. Produkzio ereduaren eta ekonimiaren erdigunean eta pertsonak eta lurraren gaitasun biofisikoa jarri behar dugu.

Gonbidatu nahi zaitugu borrokatu, irudikatu eta eraikitze.

Borrokatu osasunerako, hezkuntzarako eta etxebizitzarako eskubidearen alde; aberastasunaren eta lanaren (produktibo eta erreproduktibo) bidezko banaketaren alde. Demokrazia sozial eta ekonomiko lortzeko inplikatu era aktiboan.

Irudikatu une batez "irabazten ari garela" edo "ez galtzen hasi garela": pentsatu nola litzatekeen beste gizarte hori, eta, segidan, amestutako bizimodu hori gauzatzen saiatu. Koherentzia pertsonala eta kolektiboa bultzatu behar dugu, jardute amankomunak sortu amestutako mundu horretara ahalik eta gehien hurbiltzeko.

Eraiki, oraintxe bertan hasita, lan egiteko modu berriak, harreman molde berriak, bizikidetzak mota berri bat.

Eta laguntzeko, hona hemen modu praktikoko batzuk, kapitalismoarekiko menpekotasunari aurre egiten hastako. Izan ere, eguneroko ekintza txikiak ere politikoa da eguneroko bizimodua da gure eremu askatua, besteei erakusteko eta geure buruari badaudela alternatibak.

(1) EZ ZAITZALA INORK GELDITU

Langabezian zaude eta baduzu bideragarri eta arrakastatsu izan litekeen ideien bat? Ekin horri zure konfiantzako beste batzuekin batera. Eraiki zure bizitza proiektua, sortu kooperatiba bat eta beste balore batzuen arabera lan egin, inori zeure-zeureak diren erabakiak hartzen utzi gabe. Nahi baduzu, funtziontzen ari diren ideia batzuk begira ditzakezu, ekonomia solidarioaren jardute zuzenak dakartzan zerrenda honetan:

www.economiasolidaria.org/buenas_practicas_videos

(2) SORTU "ZEURE" ENPRESA

"Zure" enpresa desagertzeaz dago, nagusia jubilatzeko delako, eta kontuak "ateratzen ez zaizkiola" esaten duelako? Ez etsi, beharbada bideragarria da, eta langileon esku gera liteke, kooperatiba sortuta! Horrela egin zen askotan hainbat herrialdetan, Argentina edo Brasilen kasu, orain dela 10 urte.

Argibide gehiago hemen:

www.coceta.coop/Coceta/UnaCTA.asp

(3) IDEIA EZKERTIARRAK BAINA POLTSIKO ESKUINDARRA?

Pokerrean aritzen ez denak ez du pokerrean inoiz galtzen. Ez utzi zeure aurrezkiak banku eta kutxetan espekulatzeko jarrai dezaten eta zeure kontura aberastu daitezten. Eraman bestelako entitateetara: irizpide garden eta demokratikoak dituztenak, eta proiektu sozialak, solidarioak eta ekologikoak finantziazten dituztenak. Espainiar estatuan badaude banka etiko eta finantza alternatiboak dituzten bi entitate, eta hauek bazkide edo bezero izan zaitezke.

Argibide gehiago: www.proyctofiare.com eta www.coop57.coop

(4) ASEGURU ETIKO ETA SOLIDARIOAK

Aseguru-etxeek ere aseguratuen dirua jokatzeko dute burtsen bidezko kasu globalen. Baina hemen ere badaude ardura soziala duten alternatibak. Hainbat kooperatibak eta aseguru etxeek Etsi zigilua lortu dute: horrela ziurtatzen da aseguru-produktuak sozialak eta ingurumen aldetik jasangarriak direla, eta informazioaren aldetik gardenak.

Argibide gehiago: www.ethsi.net

(5) KONTSUMITU KONTZIENTZIAZ ETA ARDURAZ.

Gastatzen dudako euro bakoitzeko gauza onak egiten dira? Edo erabiltzen ditudan baliabideak kontrolatzeko gerrak sortarazten dira? Laguntzen al ditut ingurumena kaltetu edo langileak esplotatzen dituzten enpresak? Multinazional bateko frankizian erosten dut, ala auzoko dendan? Nire bizi-mailari eusteagatik beste pertsona, espezie edo ekosistemak kaltetzen al dira? Saiatu kontzientziaz eta arduraz kontsumitzen: kooperatibak, kontsumo urriko bonbillak, ura aurrezteko sistemak, energia berriztagarriak, gertuko merkataritza edo solidarioa (bidezko merkataritza). Horiexek dira alternatiba batzuk.

Argibide gehiago: www.konsumoresponsable.coop

(6) HOBEBI BIZITZEKO GUTXIAGO EROSI

Publizitate konpulsiboak beti gehiago kontsumitzera garamatza. Hala ere, ikerketa guztiek frogatzen dute behin oinarriko beharrak aseta, nahiz eta gauza gehiago eduki ez garela zoriontsuagoak. Gainera utopikoa eta suizida da gure oraineko kontsumismo-mailari eustea. Baliabide gutxiago kontsumitzen duen gizarte bat sortzen joan behar dugu. Kontsumismo irrazionala saihestu dezagun. Dirua aurrez dezakegu eta urritu hondakinak, erosketa txikituz, behar duguna truke feria eta azoketan, partekatuz, erosketak eta bigarren eskuko artikuluen bidez...

Argibide gehiago: www.decrecimiento.info eta www.aeress.org

(7) JAN OSASUNTU, INDARTU HERRIAK

Zure herriko edo auzoko kontsumo ekologikoko kooperatiban bazkide egin. Osasuntsuago janen duzu, komunitatearekin bat eginen duzu, zure lurraldeko elikagai-subiranotasuna bermatuko duzu eta nekazariei segitzen lagunduko diezu, multinazionaleri aurre egin behar baitiete. Dagoeneko, kontsumo ekologikorako 600 talde, elkarte eta kooperatibatik gora dago espainiar estatuan.

Argibide gehiago: gruposdeconsumo.blogspot.com.es

(8) ETXEBIZITZA ESKUBIDEA DA, EZ LUXUA

Familia asko bankuek etxetik botatzen dituzte, hipoteka ordaindu ezin dutelako, eta gainera zorra ordaintzen segitu behar dute. Milaka lagun kaleratuta. Hala ere, auzokideen elkartasunagatik eta desobedientziaren bidez ia 200 kaleratze baino gehiago gelditu ziren, elkar lagunduta krisiaren ondorio larrienei buelta eginez. Denok etxea zentzuzko prezioan lortzeko alternatibak bilatzen ari gara: etxe partekatuak, hiriko lan eta etxaldeak, gehiegizko prezioen jaitsiera automatiko eta kolektiboa, etxebizitza kooperatibak ematea erabiltzeko...

Hipoteken iruzurraren kontrako borrokaz:

afectadosporlahipoteca.wordpress.com,

Gizalegezko etxebizitza: sostrecivic.org

(9) LANAK BANATU ... BAITA ELKAR ZAINTZA ERE

Etxeke guztiekin zuzen banatu etxeke lanak eta laguntza behar duten pertsonen zaintza ("lan ikustezina" BPGaren %22 da). Oraindik ere lan erreproduktibo horiei ez zaie ez preziorik ez baliorik ematen, bizitzeko ezinbestekoak badira ere, eta beti emakumeek bizkar geratzen dira.

Argibide gehiago:

<http://singenerodedudas.com/economiaFeminista>

Krisiaren diagnostikoa eta ekonomia feministaren erantzunak: <http://cort.as/2qL1>

(10) KONTSUMITU ENERGIA %100EAN JATORRI... BERRIZTAGARRIA

Dagoeneko energia era arduratsuan kontsumi dezakezu aldaketa klimatikoan eragin gabe. Gainera, ekintzara salto egin dezakezu: energia berriztagarrian inbertitu zuzenean, "Som-Energia" kooperatibako kide egin eta parte hartu.

Argibide gehiago: www.somenergia.coop

(11) KOMUNIKAZIOAN BOTERE MEDIATIKOTIK... INDEPENDIENTEA

Bilatu manipulatu gabeko komunikazioa, masa-komunikazioko akziodun handietatik urrun. Kendu etxeke telebista, eta zure inguruan dagoen eskaintza zabala begiratu: informazioa, aisialdia eta kultura independentea. Pasatu ipuinaren ikusle soila izatetik mezuaren parte aktiboa izatera.

Adibide bat: www.diagonalperiodico.net

REAS aldizkaria: <http://cort.as/2p8b>

(12) EZAGUTZA, KULTURA ETA SOFTWARE LIBREA... IREKIA ETA LANKIDETZAZKOA

Amankomunaren aldeko gizarteak ezagutzaren truketzea bultzatzen du. Nahasketa eta partekaturiko taletu eta kulturaren berrerabiltzea kulturaren oinarrian dago.

Software librea erabili, lizentzia librez argitaratu:

Argibide gehiago: <http://fcforum.net/es/charter>

REAS eta kultura librea: <http://cort.as/2p8Z>

(13) ELIKAGAI SUBIRANOTASUNA ETA... BIDEZKO MERKATARITZA

«Erabili eta botatzea» gure kontsumitzeko moduaren oinarria da. Eredu honen barnean herritarra ez da kontsumitzaile baino. Elkarrekin trukatzeko paradigma berriak sortu behar dira, irizpide ekonomikoaren ordez irizpide etiko eta ekologikoak dituztenak, bertako elikagai-subiranotasuna bermatzeko eta bidezko merkataritzaren irizpideen arabera, nazioarteko harreman ekonomiko zuzenak garatzeko.

Argibide gehiago: <http://cort.as/2p8z>

Bidezko Merkataritzako Estatuko Koordinadora:

<http://comerciojusto.org/>

Elikagai Subiranotasunaren aldeko Aliantza:

<http://www.alianzasoberanialimentaria.org>

(14) HASI BIZITZEN KAPITALISMOA ALDE BATERA UTZITA

Estatu osoan eremu alternatiboak sortzen ari dira: merkatu sozialak, produktuak trukatzeko sareak, denbora-bankuak edo bertako moneta sozialaz diharduten guneak. Horien bidez produzitu, banatu eta kontsumituz gero, behar duzuna lortu ez ezik, zeur balio eta jardute ekonomikoaren arteko koherentziari eusten ahal zaio. Merkatu sozialaren alde.

Argibide gehiago:

www.konsumoresponsable.coop/mercado-social

Kanpaina: goteo.org/project/desarrollando-el-mercado-de-economia-solidaria

(15) EKONOMIAZ BERRIZ JABE EGIN... EKONOMIA SOLIDARIOAREN SAREAK INDARTU

Eredu ekonomiko alternatiboa lortzekotan, borondateak batu eta partekatu behar da eragin soziala handitzeko. Sarearen ereduaren bidez parte hartzen duten erakundeek eta pertsonen autonomiari eusten zaio. Erabaki deszentralizatuen bidez garapen horizontala sortzen da, eta parte hartze handiagoa nodo bakoitzean. Elkar laguntzeko mekanismoak ezartzen dira, eta gida honetakoak bezalako tresna komunek parte bakoitzari eta osotasunari koherentzia ematen diete. Ekonomia solidarioko lurraldeetako eta sektoreetako sareak irekita daude erakundeek eta pertsonen parte hartzeko. Beraz zuk ere parte har dezakezu edo lagundu.

Argibide gehiago:

www.economiasolidaria.org/como_participar/colaborar

Ez gure izenean, ez gure lanaren bidez, ez gure kontsumoaz, ez gure diruaz.

Kontua ez da krisitik ateratzea kapitalismoari eusteko, krisia sortzen duen kapitalismotik irtetea baizik. Ekonomia demokratikoa, bidezkoa eta jasangarrirako enbrioiak sortzen hasi behar dugu. Ekonomia pertsonen zerbitzuan, ez merkatuen esanetara.

Nola? Borrokatuz, irudikatuz, eraikiz.

info@economiasolidaria.org
www.economiasolidaria.org

REAS – Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sareen Sarea